

Hilaren 15eko Bilboko manifestazioa

EAJk egin bezala, beste manifestazio bat egiteko eskatu diote EHri EAk eta EB-IUK

Bilbon izatekotan, manifestazioko mezua osorik onartu beharra daukala azaldu diote

Erredakzioa / Donostia

Larunbatean Bilbon egingo den manifestazioko mezua osorik onartzen ez baldin badu, beste bat antolatze eskatu zioten atzo HBri EAJ, EA eta EB-IUK. Hala, herenegun gauean Euzkadi Buru Batzarrek egindako eskaria bere egin zuten atzo EA eta EB-IUK.

EAJ-K, EAk eta EB-IUK, larunbateko manifestazioari begira, irizpide bateratua azaldu zuten atzo, eta EHri bertan izan nahi badu beraiek manifestaziorako onartu duten mezua bere horretan onartu behar duela azaldu zioten. Hiru alderdiek onartutako mezua honako hau da: *Bakearen alde. ETA gelditu. Espainia eta Frantziako gobernuak mugitu. Euskal Herriak du hitza eta erabakia.*

Xabier Arzalluz EAJko Euzkadi Buru Batzarreko (EBB) lehendakaria izan zen atzo EHri eskaria egiten lehena. Izan ere, goizean Euskadi Irratiari eskainitako elkarrizketan, manifestazioko mezua eta helburuak onartzen ez baditu, bere manifestazioa egiteko eskatu zion EHri, «horretarako eskubide osoa baitu». Manifestazioari beste mezua batekin atxikitzea ez du onartzen Arzalluzek, «gauzak nahastea ez baita ona, are gutxiago momentu honetan».

Era berean, HBk bere burua manifestazioan egotera behartuta ikusi duela uste



LUIS TEJIDO / EFE

Begoña Errazti, Xabier Arzalluz eta Javier Madrazo, Bilboko manifestazioaren aurkezpen ekitaldian.

du Arzalluzek, Lizarra-Garaziko gainontzeko alderdiek kalera irtetera doazelako. Halaber, zera gaineratu zuen buruzagi jeltzaleak: «HBk oraindik ere ez du politikan aritzeko behar duen autonomia, eta horregatik, esate baterako, ETari ezin dio publikoki eskatu gelditzeko».

Lizarrako sinatzaileak «gauza guztietan ados ez egon arren», akordioaren balioak indarrean jarraitzen duela nabarmendu zuen Arzalluzek. Ildo horretan, Lizarrak bakea bilatzeko eta lortzeko prozesu bezala bere pisu guztia mantentzen duela gaineratu zuen.

EA deialdia berraztertze prest

EAKo Euskadiko Batzorde Eragileak ere bere iritzia plazaratu zuen atzo goizean, herenegun gauean Iruñean bildu ostean. Bi puntuko ohar labur batean, EHri «erantzukizunez jokatzeko» eskatzen dio EAKo zuzendaritzak, eta manifestazioko leloa onartzen ez badu beste bat antolatze eskatu egiten dio. Era berean, EHk hala egiten ez badu, manifestazioan parte hartzeko aukera gainontzeko deitzaileekin, hau da, EAJ eta EB-IUrekin, berraztertuko duela argitu du EAK.

Azkenik, Jose Navas EB-IUKo diputatuak ere, manifestaldiko mezua osotasunean onartzeko edota beste deialdi bat egiteko eskatu zion atzo EHri. Navesen ustez, ez da zilegi manifestaldi batean mezu eta leku berezi batekin parte hartzea, «horrela helburu ezberdineko bi ekitaldi sortzen baitira eta horrek nahasmena sortzen baitu». EHko kide askok ETArekin apurtu nahiko luke baina «adore nahikorik ez dutela» ere gaineratu zuen Navasek. Hori bai, ETak su etena apurtzen duenean, «argi eta garbi» hitz egin beharko dutela gaineratzen du.

Deialdi gorabeheratsua

■
Pello Urzelai

Egokitzapenak • EAJk, EAk eta IUK antolatutako manifestazioaren inguruan sortutako gorabeherak su-etenen hausturaren osteko egoeran kokatu behar dira eta bertara egokitzeko saioztat ulertu ahal dira. EAJk, EAk eta IUK espazio politiko propio bat bilatzen zuten, balizko bi muturren artean. Ezker abertzaletik bereizteko aukera gisa planteatu zuten hilaren 15eko mobilizazioa, batez ere ETaren atentatu baten aurrean. EHk nabardura batzuk egin arren, 15eko manifestazioa-

ri erantsiz, Lizarra-Garaziko argazkia ez haustearen aldeko apustua egin du, bakarrik gelditzea saihestuz, jakinik ere bere parte-hartzeak bestelako dimentsioa emango ziola.

Nork bere itzala • EHren

jokaldiaren aurrean EAJk eta EAk izan duten jarrerak erakutsi du 15eko manifestazioaren deialdiaren atzetan jarrera taktiko bat ere badagoela atzean. Izan ere, EHren iragarpenaren ondoren, bost deialdietatik bat bakarra nagusitu da: *ETA*

gelditu dioena. Hasieran, pankartaren goialdean hizki txikietan zegoenak estali egin du hizki handietako leloa (*Euskal Herriak du hitza eta erabakia*). Ados puntuak bilatu eta malgutasunez jokatu beharrean, EAJ eta EA deseroso eta uzkur agertu dira. Sinatzaile guztiak dioten bezala, Lizarra-Garaziko Akordioak balioa izaten segitzen badu, batzen dituen gehiago bada eta apustua estrategikoa bada, deialdi honen inguruko gorabeherak gainditu beharko lirake.

Eusko Jaurlaritzak, Elkarri-k eta Nafarroako IUK bat egin dute Bilboko manifestazioarekin

Erredakzioa / Donostia

HELDU den larunbatean Bilbon egingo den manifestazioari babesa eskaini zioten atzo Eusko Jaurlaritzak, Elkarri-k eta Nafarroako IUK.

Gasteizko Gobernua Bilbon ordezkaturik izango dela adierazi zuen atzo Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Jon Imazek, «deialdiaren helburuarekin bat egitea zilegizkoa eta beharrezkoa delako». Imazek azaldu zuenez, Jaurlaritzak bat egin du larunbateko ekimenarekin, «ETari berriro su-etena ezar dezan eskatzen diolako, Madrilgo Gobernuaren inmovilismoa salatzen duelako eta alderdi guztien arteko elkarrizketak posible lirakeen gune berri baten aldarria egiten duelako». Era berean, Euskal Herritarrok taldeak manifestazioan bere leloa agertzearen inguruan ere mintzatu zen Imaz. Haren ustez, «manifestazio batekin bat egiten denean, leloarekin ere bat egiten da, bestela ez da manifestazio horretako partaide».

«Inmovilismoaren eta biolentziaren aurka»

Bestalde, Elkarri-k ere bat egin zuen atzo hilaren 15eko manifestazioaren deialdi eta leloarekin. Atzoko bileraren ostean, Elkarri-ko Tailer Nazional Iraunkorrak agiri bat kaleratu zuen, deialdiaren «planteamendu eta ideiekin» bat datorrela adierazteko. Haren aburuz, «egungo egoera konplexuan ezinbestekoa da biolentzia ukatzea eta elkarrizketari bide ematea». Egoki ikusten du, «gizartea bake prozesuaren bi arrisku handien aurrean mobilizatzea; inmovilismoaren eta biolentziaren aurrean hain zuzen ere». Azkenik, Nafarroako IUK ere EAeko kideen ekimena aldeztu du, eta bat egin du manifestazioarekin. Atzo kaleraturiko agiri batean, bakea lortzeko mobilizatzea «ezinbestekoa» dela esan zuten. Euskadiko Gazteen Kontseiluak ere bat egin du manifestazioarekin.